


VILLA CARMEN
D MAILA

ZUBIAURRE PASEALEKUA 5



Lukas Aldai, 1917.

Deskribapena

Etxea plataforma baten gainean dago, pasealekua baino gorago, murrak halako presentzia bat duela, eta bolumena nabarmenduta. Estilo neoeuskalduneko etxea da, masiboa itxuraz fatxadetan; estalkiko hegalek eta aurrealdeko bao motak nabarmentzen dira. Teilatu-hegalek jabaloiak dauzkate, fatxadan finkatutako harrietan oinarrituta, eta adreiluz betetako bilbadurarekin ere lotuta daude. Bi solairu ia karratu eta teilatupekoa dauzka. Gauzarik bereziena arku lobuludun eta azpadunen erabilera da, hiru baoko multzoak eginez biltzen baititu, eta erdiko ardatzaren konposizioa, arku beheeratu bat baitu atari gisa, bao biki batez hornitutako goiko balkoiarekin batera.

D mailaren babes araubidea

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: geroago beheko solairuan egin erantsia eta terraza.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko, zurezko eta adreiluzko elementuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.